

Zuria baino haratago

Odolaren zapore ezak esnatu zaitu. Ez dakizu nondik nora zehazki, baina begi ondotik hasi eta masailetatik behera senti dezakezu odol tantek egindako bidea, bata bestearen atzetik, erreka fin bat sortu duten arte. Zure ezpain hotz eta urdinean bilatu du isuriak itsasoa, eta orduan zabaldu dituzu begiak. Hori bai, betazalak nekez ireki dituzu, mutikotan, erronkaka altxatu ohi zenituzten harroba t'erdiko harriak bailiran. Mugimendu soil horrek akituta utzi zaitu. Ezin zara mugitu, begi niniak ere kostata mugi ditzazkezu. Ahalegina egitea erabaki duzu hala ere. Ezker eskuin aurrena, gohitik behera gero. Lekua ezezaguna egin zaizu. Irri egin duzu oharkabea. Izan ere, albiste ona da hori. Zator-zulo hartako izkin, koska, eta hauts ale bakoitza ezagutzen duzu. Azkenean irten zara infernu horretatik. –Eskerrak- pentsatu duzu zure baitan, -bestela nire adiskidearen moduan amaituko nuen, zintzilik-. Une batez, barnean zabaldu zaizun poza hautsitako hezurrek sortzen dizuten minari gailendu zaio. Irria berriro. Begiak itxi dituzu ostera eta sakon hartu duzu arnasa, lorategi bateko lore guztiak batera usaindu nahiko bazenitu bezala.

Berriz ere, mina hasi da gailentzen. Oraindik ez zara egoeraren larritasunaz jabetu. Oroitzen saiatzen zara. Ez dakizu zer, baina zerbait ekarri nahi duzu gogora. Mina baretzeko helburu soilagatik sikiera. Berriro ere, harroba t'erdiko betazalak altxatu dituzu. Arreta handiagoz erreparatu dituzu bazterrak. Zuria zuriaren gainean, besterik ez duzu atzeman. Begirada ordea, ez zaizu zure sudur hautsiarekiko 90ºtara iristen eta beraz, ezin duzu egoerari erantzuna emango lioken ezaugarria ikusi. Kuriositateak edo agian minak bultzata, zehazki ez dakizu zergatik, begirada estutu duzu, kolore zuria baino haratago dagoen zerbait detektatu nahian bezala. Saiakuntzak fruitua eman du. Pitzadura bat atzeman duzu, goitik behera, elur garbian zabaltzen den zirrikitu estu bat. Indar guztiak, eskua, egindako aurkikuntzaruntz mugitzera bideratu dituzu. Marra finaren gainazala laztantze hutsak hatz puntako azala ebaki dizu. Zauritik irtendako odolak, gorritz zikindu du zuria, eta orduan ikusi duzu zure aurpegi moretua kristalean islaturik. Atzerago berriz, anaiarena. Azken hau, zurea baino moreago, zurea baino zurbilago.

...

Urduri dago Maddi. Eta are gehiago, telefonoa eseki duenetik. Berak ez du onartu nahi, baina eskuko atzazal motzek salatzen dute. Maddi ezagutzen duen orok, badaki kirioak dantzan dituenean, atzazalei “koxk” egiten diela. Urduri dago beraz, eta nekatuta, eta pozik, bereziki pozik dago. Izan ere, gabon zahar hauetan, hamabi mahats ale gehiago prestatu beharko ditu amonak.

Azala kontuz-kontuz kentzen die, hamabiak jotzean, eztarrian behera errazago irrist egin dezaten. Bihotza ere kentzen die. Horrela errazagoa dela esaten dio Maddik. Amonaren urteroko lana da hori. Lan serioa. Azken telefono deian, semeari galdetu zion ea nola nahi zituen urte zaharretako mahatsak: Oso osorik, zurituta, edo bihotzik gabe. –Nola jaten dituzu zuk ama? Horrelaxe nahi ditut nik ere. Ahal bada ordea, ez kendu bihotzik nire mahatsei, nahiago bihotzarekin-. Amonak papertxo batean apuntatu zuen semeren aukera eta egutegian atxiki zuen txintxeta batez.

Lan handiko astea izan da hau Maddirentzat. Beti izan da perfekzionista xamarra eta dena prest eduki nahi du unea iristen denerako. Etxea goitik behera garbitu du. Aitaren logela bulego bezala erabili du eraman zutenetik hona. Orain, ganbaran egin du txoko berria. Aitak, dena joan zenean bezala aurkitzea nahi du. Ideia horrekin atera zion argazkia logelari bere bulegotxoan han ezartzea erabaki zuenean. Erretratua eskuetan duela, izkin guztiak erreparatzen ditu, eskuinetik ezkerrera. Egongelako erlojuaren akordeei jarraituz aldatzen du begiradaren norabidea: “Tik” argazkia, “tak” logela, “tik” argazkia, “tak” logela, eta horrela dena bere lekuan dagoela frogatu arte. Une batez, gau-mahaiaren gainean dagoen erretratuan iltzatu zaio begirada. Zotzi urte zitueneko irudia da. Aita eta biak ateratzen dira elkar besarkatuta. Urte asko igaro diren arren, oso ongi oroitzen da argazki hori atera zuteneko egunaz. Orduan ere negua zen. Inoiz baino gustorago jeiki zela gogoratzen da. Aitzitik, haur guztiek gogoko dute elurra, eta orduko hartan herriko bazterrak zuri zuri esnatu ziren. Gosalduek, aitak bi txirikorda egin zizkion, eskularruak jantzi eta atarira irten zirenean, -Maddi, gaur ez zara eskolara joango, aurtengo lehen elurtea da eta behar bezala eskertu behar diogu halako paisaia ederra oparitzeagatik-, esan zion aitak. Hitz horiek izugarritzko poza sentiarazi zioten sabelean, halako molde, non aitaren lepora jauzi egin eta indar guztiekin estutu baitzuen. Orduan, osabak “klaxk” atera zien aita-alabei argazkia.

Burutazio batek atera du bapatean oroitzapenetatik. Bitxia iruditu zaio, nola argazkian jazotakoak eta egunekoak bat egiten duten: Izan ere, aurtengo lehen elurtea da, eta ordu gutxi barru besarkatu ahal izango du aita atariaren aurrean. Marra fin bat zabaldu zaio aurpegian, eta lurrindutako leihotik haratago dagoen zuriari begira geratu da.

...

Zuria. Zuria zuriaren gainean, azpian, alboan... Zuriak, erre egin dizu jada ikusmena. Oroitzapenak ere zuriz azaltzen zaizkizu gogoan. Denbora igaro ahala jasanezinago bihurtzen

ari den mina ere zuria dela otu zaizu. Ezinegonak, negar anpuluz bete dizkizu begi zuriak, eta ezin dituzu lehortu, esku bat burni artean harrapatuta duzulako eta besteak zure gogoari jada jaramonik egiten ez diolako. Agoniak intziri eginarazi dizu. Agoniak edo agian, anaia esnatzea lortuko ote duzunaren itxaropenak. Bai... agian anaia itzartuko duzu horrela. Intzirika jarraitu duzu beraz, geroz eta ozenago. Anaia ez du zirkinik ere egiten, ez duzu etsi nahi ordea. Eskuineko hankak “klak” egin dizu. Askatu egin da, ez dakizu nola, baina orain, zertxobait bada ere mugitu dezakezu. Belaun ertzarekin kolpeka irratia pizten saiatu zara. Dena izango da ongietorria zarata ateratzeko bada!! Ederki!! ahots ezti bat hasi da hizketan, horixe da behar zenuena, sosegatuko zaituen ahots gozo bat belarrira xuxurlatzen. Intziri egiteari utzi diozu ahots eztiak dioena entzuteko. *-Aurtengo lehen elurtea indartsu iritsi da gure herrialdeetara. Errepideak oso egoera txarrean daude eta beraz, arretaz gidatu-* .-Bai zera??-, pentsatu duzu zure artean. Jada ez zaizu iruditzen esatariak ahots ezti duenik. Gainera, anaia ez da esnatu.

Etxean egon nahi zenuke. Alabarekin, amarekin. Esker txarreko sentitzen zara. Badakizu kuadrilakoek ongietorri bero bat prestatu dizutela herriko plazan eta ez duzu berandu iritsi nahi. Zer egin dezakezu ordea hori ekiditeko? Ezer ez. Zuloan eman dituzun urte guztiak eta gero, berriro ere gatibu zara. Bakartuta egon zineneko egun latz haiek etorri zaizkizu gogora. Konstatazio bat egin nahi duzu soilik: Hormak beltzak ziren ziegan, orain zuriak dira. Behin irakurri zenuen, pertsonen baitako bakardade hautatua, gozo eta aberasgarria izan ahal dela, baina bakardade hori infernu bilakatzen dela bortxazkoa denean. Bakardade horretan, hotza sentitzen hasi zara.

...

Hotzez dagoela eta, aurreko neguan amonak artile gorriz egindako jertsea jantzi du. Egongelako erlojuak seirak jo ditu. Bere kalkuluen arabera ordu pare bat gehiago beharko dituzte iristeko. Maddik, 15 urtez itxarondako unea gerturatu ahala, sabeleko tximeletak geroz eta aztoratuago sentitzen ditu, zilipurdika ariko balira bezala. Ondo irtengo ote da dena? Baserriko atari aurea erreparatu du leiho ertzetik. Elurraren zuriak ederragoa egiten duela iruditzen zaio. Behe-lainoak paisaiako hainbat txoko estaltzen ditu, Mikel Laboaren abestian bezala. Leioa zabaldu eta inguruak zer ote dioen entzuten jarri da. Errekastoaren xuxurla geldoak, ozta-ozta uzten dio plazatik lau haizetara zabaltzen diren haurren “din dan don” zein “horra-horak” aditzen. Sukaldetik datorren usainak kili-kili egin dio sudur-zuloan eta berehala itxi du leihoa lurrin gozo horrek ihes egin ez dezan eta ez dadin alferrik galdu, errekastoak, behe-lainoak eta elurraren

zuriak ez baitakite usaintzen. Amona afaria prestatzen ari da: Babarrun beltzak. Albizturkoak, aita horiexek ditu gustokoen. Hori bai, odolki eta txorizo egosirik ez dadila falta. Piskanaka-piskanaka, herrira hurbiltzen joango dela erabaki du Maddik. Ea handik nola doan dena.

...

Begiak zabalik edukitzea ahalegin handia da jada. –Hau amaitu da-, pentsatu duzu, eta betazalak zarratzearekin batera, itxaropen zirrikitu urriak elurrak estali ditu. Nekatu zara borrokan egiteaz, bizitzan lehen aldiz, etsi egin duzu. –Azken finean, denok etsiko dugu egunen batean-, esan dizu zerbaitek barnean, kontsolagarri gisa. Begi zuriak itxi dituzu beraz, gehiago ez zabaltzeko asmoz.

Jende uholde baten irudia etorri zaizu gogora. Herriko plaza ikusten duzu. Ikurrinak batera eta bestera dantzan jartzen ditu haizeak. *“Herriak ez du barkatuko”* eta *“Sakabanaketak hil egiten du”* bezalako leloak irakur ditzakezu balkoietatik zintzilik dauden pankartetan. Txalaparta doinuaren eta *“mikel, gogoan zaitugu”* dioten ohiuen oihartzunak burrunba egiten dizu belarrietan, eta eliza ondoko oholtza gainean, berriz, zure argazki erraldoi bat ikusten duzu. Bapatean zerbaitek irrist egin dizu eztarrian behera. Amaren begirada xamurra topatu duzu parean. Mahats alea ahora sartzen duen bakoitzean, irri egiten dizu, eta irri egiten duenero “gluk” egiten duzu zuk ere, kanpaien konpasa jarraituz. –Asko bota haugu faltan seme-, esan dizu amak begiradarekin. Beti gogoan izan duzula eta afaltzeko prestatu dituen Albizturko babarrunak oso goxoak zeudela erantzun diozu zuk, begiradarekin baita ere. Hamabigarren kanpai hotsarekin batera, zerbaitek lepoa inguratu dizu. Neskato baten irriak diz-diz egin dizu begietan. Maddi da. Eta hortxe zaudete biak, masaila masailaren kontra, elurra egin zuen egun hartan ateratako argazkian bezala. Alabaren sorbalda tiki horretan “pla” egin du eztanda begitik erori zaizun anpulu lodiak, baina muxu batez lehortu duzu jarraian. Ezkerreko eskuak, bizkarrean goruntz egin du bidea eta ia-ia begia estaltzeraino iristen zaion ile adatsa atzera bultza duzu. –Gaur elurra ari du Maddi, gaur ez zara eskolara joango- esan diozu oliba begiez begiratzen zaituen haurrari. “Pla” egin du berriro ere beste anpulu batek. Indar guztiekin estutu duzu oster, eta orduan haurraren gorputza desagertu egin da. Besoekin hutsa besarkatzen ari zarela ohartu zara. –Maddi!! Maddi!-, egin duzu deiadar. Ezer ez. Bakarrik zaude etxeko atari aurrean. Errekastoaren xuxurla, behe-lainoak agerian uzten dituen paisaia zatiak, eta elurraren zuria, besterik ez dago inguruan. Piskanaka-piskanaka, zuria hasi da gailentzen. Zuria zuriaren

gainean, azpian, alboan, ikusmena erabat erre arte. Orain, ez da ezer geratzen zuria baino haratago.